Bestelako Xedapenak

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

4765

EBAZPENA, 2010eko irailaren 23koa, Funtzio Publikoaren zuzendariarena, interesdun izan daitezkeenei epea jartzen diena, alderdi bezala ager daitezen Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan jardundako 812/10 prozedura arruntean.

Ebazpen honen bidez argitara ematen da Funtzio Publikoaren zuzendariak 2010ko irailaren 23ko Ebazpena eman duela non xedatu den Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salari bidal dakiola honako prozedurari buruzko espediente administratiboa:

812/10 zenbakiko prozedura arrunta: Justizia eta Herri Administrazio sailburuaren 2010eko apirilaren 16ko Aginduaren aurka Ascensión Subielqui Pérez de Nanclares andreak aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa. Aurkaturiko agindu horretan, hain zuzen, EAEko Administrazio Orokorreko Administrari Laguntzaileen Kidegoko karrerako funtzionario izateko hautaketa-prozesurako deialdia egin zen.

Prozedura horrek eragina izan dezake lehen esandako hautaketa-prozesuaren ebazpenean.

Horregatik guztiagatik, eta Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen Legeak, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak emandako idazkeran, 49.1 artikuluan agindutakoarekin bat etorriz, honako hau

EBATZI DUT:

1. Aipatutako espedienteetan interesdunak izan daitezkeenei bederatzi eguneko epea jartzea, den Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salaren aurrean lehenago esandako prozeduretako alderdi bezala aurkezteko aukera izan dezaten.

2. Honako hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko irailaren 23a.

Funtzio Publikoaren zuzendaria,
M.ª LUISA CUESTA ARANDILLA.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

4765

RESOLUCIÓN de 23 de septiembre de 2010, de la Directora de Función Pública, por la que se emplaza a los posibles interesados en el Procedimiento Ordinario 812/10 seguido ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco a fin de que puedan personarse como parte en el mismo.

En virtud de esta Resolución se hace público que la Directora de Función Pública, con fecha de 23 de septiembre de 2010 ha dictado Resolución por la que se dispone la remisión a la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco el expediente administrativo relativo al siguiente procedimiento:

Procedimiento Ordinario 812/10: recurso contencioso-administrativo interpuesto por Ascensión Subielqui Pérez de Nanclares contra la Orden de 16 de abril de 2010, de la Consejera de Justicia y Administración Pública por la que se convocó el proceso selectivo para el ingreso como funcionario de carrera del Cuerpo Auxiliar Administrativo de la Administración General de la CAPV.

Este procedimiento puede afectar a la Resolución del proceso selectivo anteriormente referido.

Por ello, de conformidad con lo preceptuado en el artículo 49.1 de la Ley Reguladora de la Jurisdicción Contenciosa-Administrativa, redactado por la Ley 29/1998 de 13 de julio.

RESUELVO:

1.– Emplazar a los posibles interesados en el referido expediente para que puedan comparecer en el plazo de nueve días ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco y personarse como parte en los procedimientos antes citados.

2.– Ordenar la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 23 de septiembre de 2010.

La Directora de Función Pública,
M.ª LUISA CUESTA ARANDILLA.